

gaiak
euskalsex
gazte egonaldiak
itsasmendikoi

QEU

2,40 €

2007ko uztaila

175

musika
jazzharrean 07
one man band

bidaiak
bidaiateka
thailandia
zuia



zuriñe gil garcia de azilu
athletic taldeko jokalaria



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

*Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.*



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

sumarioa 175



7

ZURIÑE GIL



13

EUSKALSEX



32

VIRGEN BLANCA JATETXEA


- 4 zeregin
uztaileko agenda
jazzaharrean / jazzaldia
- 7 geupertsonaia
zuriñe gil garcia de azilu,
athletic taldeko jokalaria
- 11 euskaltasunean. legutio
jonathan resurreccion
- 12 kaletik / idazleen zutabea
parte-hartzea / rikardo arregi
- 13 geugaia
euskalsex topaketa,
bilbo-uztailak 20-22
- 16 gaztezulo aldizkaria
gizon orkestren bakardadea
- 18 arte txokoa
geu15. idazleak galan
- 20 batbitan
jazzaharrean
- 22 batbitan
gazte egonaldiak 07 bernedon
[elkarrizketa: nagore amondarain]
- 24 arababixotzian / historiazutabea
mundina / erlantz urtasun
- 25 proposamenak / haur&gazte literatura
ipuinak / txabi arnal
- 26 batbitan
itsasmendikoi
- 28 bidaiak
bidaiateka / thailandia / zuia
- 32 batbitan
gasteizko jatetxeak: virgen blanca
- 34 historia
aiala kantzillerra
- 35 umorea
iñigo sarasola

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kailea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkari batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa arriaga eta naroa cuesta | azala: argazki press | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: rikardo arregi, karmele jaio, gerardo markuleta, patxi zubizarreta, mundina, kike fdz. de pinedo, txabi arnal, erlantz urtasun | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregin euskaraz

KULTURA-IBILALDIAK

BIZKAIA: DURANGO, LEKEITIO

uztailak 7

txango gidatuak (azalpenak euskaraz)

irteera: 9:00, iparralde g.e. / itzulera: 21:00, iparralde g.e. izen emateak: aldabe, el pilar, hegoalde, iparralde, judimendi, lakua g.e

noiz: ibilaldia egingo den asteko astelehenetik ostegunera zenbat: 12 euro (janaria ez da sartzen prezioan) www.vitoria-gasteiz.org

BISITALDI GIDATUAK

ZUIAko KOADRILA. IBILBIDEAK

-ARRAZUA-UBARRUNDIA / LEGUTIANO / ZIGOITIA

uztaila 14, 28

-ZUIA

uztaila 1, 15, 29

-URKABUSTAIZ

uztaila 7, 21

-LEGUTIANO / ARAMAIO

uztaila 8, 22

(ikus. 30. orr)

945243828 / 945430440 / 945430167

www.cuadrillazui.com



GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera (jaiegunak barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00

bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino gehiagoko taldeak

helduak: 3 euro / lagundutako

haurrak: dohainik / taldeak: euro 1

945351111

www.vallesalado.net

ARTIUM

igandero, 11:30ean
doan [taldeentzat (25 lagun gehienez) gidari-zerbitzua kontrata daiteke (aldez aurretik abisatuz. 75 euro orora, sarrera barne)]
945209010

www.artium.org

IRUÑA-VELEIA


945403044 / 652720947

www.veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA:

945255135

www.catedralvitoria.com



GRAFFITI LEHIAKETA

uztailak 14, gernika-lumón
lanak aurkezteko epea: uztailak 4
hiru sari: 1.500, 1.200 eta 900 euro
gazteak2@topagunea.org
www.topagunea.org/graffiti

LITERATUR LEHIAKETAK

epea: irailak 7
>ERNESTINA DE CHAMPOURCIN (POESIA)

>IGNACIO ALDEKOA (IPUINAK)

>BECERRO DE BENGOA (SAIAKERA)
arabako foru aldundia (945181818)
www.alava.net

DURANGOKO AZOKA. I. KARTEL LEHIAKETA

epea: uztailak 13

-kartela 70 cm x 50 cm neurrikoa izango da (ez-etzana)

-derrigorrez jarri beharreko testua hau izango da:

42. durangoko euskal liburu eta disko azoka abenduaren 5etik 9ra

-saria: 1.300 euro

gerediaga elkarte: 94 681 80 66 / gerediaga@durangokoazoka.com

www.durangokoazoka.com

AUGUSTIN ZUBIKARAI VII. SARIA

euskaraz sortutako nobela laburrak epea: abenduak 1

epaimahaia: miren agur meabe, kirmen uribe, xabier mendiguren saria: 5.000 euro

ondarroako udala-euskara zerbitzua mrey@ondarroakoudala.net / 946833668



DIBERTIKALE 07

[haurrentzako kale animazioa] uztaila, 19:30

asteartea 3 POTXIN ETA PATXIN HIRIKO EGUN BAT

arriagako g.e.ren ondoko oinezkoentzako kalea

asteazkena 4 TRAPERO DEL RÍO GAUR JAIA

haurrentzako jaia: musika, jolasak...

sefarad plaza (judimendiko g.e.)

osteguna 5 KIKI, KOKO ETA MOKO

SUSTRAI BIZIAK

konstituzio plaza (pilarreko g.e.)

astelehena 9 ZIRIKA ZIRKUS ZORIONAK ZURI

zuberoa plaza (iparralde g.e.)

asteazkena 11 TXORROMORRO LUMA GORRI

haurrentzako jai dibertigarria, musikarekin san jose ikastetxearen ondoko pista (ariznabarreko g.e.n)

osteguna 12 DETRAKA ZIRKUS MIRKUS

zirko ikusgarri bat valentin foronda zidorra (lakuako g.e.)

ADURTZAKO JAIAK

euskal ekintzak

uztailak 13-15 uztailak 13, ostirala

20:00. kalejira erraldoi eta buruhandiek. auzoko kaleetan zehar 20:30. pilota txapelketa & putxe herrikoa. ignacio deuna eskolako kiroldegian

(adurtza pilota taldea) 00:30. dantzaldia: gaubela taldea.

txosnetan (adurtza kalean) uztailak 14, larunbata

12:30. euskal dantzarien ekitaldia. auzoko kaleetan zehar

(adurtza dantza & portugaleteko berritasuna taldeak)

15:00. gazte bazkaria bertsolariekin. txosnetan

17:00. kalejira, buruhandiak, erraldoiak eta euskal dantzak. adurtza kalean

19:00. antzerkia txikientzat: teatro traperero del rio taldea, 'salam' (euskaraz). parkean

23:00. rock kontzertua: habeas corpus; a trastazos; akrata. txosnetan

uztailak 15, igandea

13:00. herri kirol jaialdia. adurtza kalean

18:00. erromeria: olarizuko txistulariak. adurtza kalean

20:00. dantza erakustaldia: adurtza dantza taldea. ignacio deuna

parrokian

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

31. GASTEIZKO JAZZALDIA. EUSKAL GAUA: KONEXIOA



uztailak 16, 20:00
HASIER OLEAGA QUARTET &
VICTOR eta JUAN DE DIEGO /
RUPER ORDORIKA
20 euro. 945191919
www.jazzvitoria.com

BESTELAKOAK

II. JAZZAHARREAN ALDE ZAHARREKO JAZZ JAIALDIA

uztailak 3-4-5 / 10-11-12
(ikus. 20. orr)
www.jazzaharrean.com

31. GASTEIZKO JAZZALDIA

uztailak 15-21
945191919
www.jazzvitoria.com

HARRESIAK BIRRINDU KARABANA


uztailaren bukaeran KARABANA
SOLIDARIO bat aterako da euskal
herriatik eta astebeko ibilaldia
egingo du estatuan barrena. haren
helburu nagusia gure gizartean
dagoen kriminalizazio sozial eta
politikoa eta munduan gero eta
herri gehiagok pairatzen duten
zapalkuntza salatzea da. aipatu
karabanak amaiera emango dio
euskal herrian zehar burututako
kanpainari.
parte hartzeko: 94479 0703 /
karabana@harresiakbirrinidu.net
<http://euskalherria.indymedia.org/>
<http://harresiakbirrinidu.interzonas.info/>



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aitzogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materialak
Ink jet original eta birzikletuak
Bulego Materiala
Enkoadernatzeak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint
Inprimatza / Inprimatza
Edozein inprimoketara

PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ


El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

KIDS
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



**“Etorkizunerako
eskatuko nukeen
gauza bakarra
athleticen
jarraitzea da”**

**ZURIÑE GIL GARCIA DE AZILU,
ATHLETIC TALDEKO JOKALARI GASTEIZTARRA:**

Denboraldi ezin hobea egin du aurten Athleticeko nesken taldeak. Superligan txapeldun titulua eskuratu du berriro ere, bere historian laugarren aldia izanik. Honi buruz Zuriñe Gil Garcia de Azilu Gasteizko jokalariairekin mintzatu da GEU aldizkaria.



FITXA

- 2001/2002 denboraldia: Aurrera (erregional maila)
- 2002/2003 denboraldia: Aurrera (nazionalera igo)
- 2003/2004 denboraldia: Aurrera (nazional maila)
- 2004/2005 denboraldia: Athletic (superliga irabazi)
- 2005/2006 denboraldia: Athletic (5. sailkatuak superligan)
- 2006/2007 denboraldia: Athletic (superliga irabazi)

Zuriñeren garaipenak Athletic-en

- 2004-2005 denboraldiko azken partidua: Barca-Athletic (0-2) Bartzelonan
- 2006-2007 denboraldiko azken partidua, San Mamesen: Athletic-Torrejon (0-0)

**t. josune velez de mendizabal
a. edorta sanz & argazki press**

Defentsa postuan aritzen da Zuriñe Gil Garcia de Azilu duela hiru denboraldi Athleticen jokatzen hasi zenetik. 18 zenbakidun kamiseta janzten duen lehoi gasteiztar honek futbola entrenamendu eta partidak IVEFeko ikasketekin partekatzen ditu. "Zoro moduan ibiltzen naiz, Bilbon bizi eta entrenatu eta Gasteizen goizez ikasten baitut", aitortu du. Belaunazurrean izandako lesioak aurtengo denboraldiaren bigarren zati osoa galtzera eraman du. Baina datorrenerako prest egotea espero du itxaropentsu oso hogei urteko gazteak.

Noiz eta nola murgildu zinen futbolaren munduan?

Futbola gustuko nuen eta ikastolako (Ikasbidea / Durana-Araba) taldean hasi nintzen jolasten denbora-pasa moduan.

Ikastolan talderik al zegoen?

Bai, baina mutilena, neskena ez. Ni nintzen neska bakarra eta gainontzeko taldeekin jolasten genuenean beti entzuten zen: "begira, neska bat dago!". Baina horretaz gain besterik ez, taldeko mutilekin oso ondo egoten nintzen.

14 urterekin, berriz, Gasteizko Aurrera klubean jokatzeke deitu zizuten, nola hartu zintuen deiak? Ustekabea bai?

Hasieran aisialdi moduan ibiltzen nintzen futboleant eta alde horretatik pozik; baina sorpresa handiagoa izan zen Athleticera joango nintzela esan zidatenean.

Eta noiz heldu zen Athleticera jauzia egiteko garaia?

Duela hiru denboraldi. Ordurako Euskadiko Selekzioan, baita Espainia-koan ere, jokalaria izandakoa nintzen, pentsatzen dut ikusiko nindutela eta horregatik deituko zidatela.

Zu izan al zinen denboraldi horretan Aurreratik fitxatu zuten jokalaria bakarra? Posible da nesken kopurua futboleant urriagoa izanik errazagoa izatea talde "handi" batean jokatzeke aukera lortzea?

Aurrera taldetik ni izan nintzen aukeratu jokalaria bakarra. Nesken artean ere kompetentzia handia dago eta ez da batere erraza talde "handi" batean aritzea; emakumezkoen futboleant maila handia dago eta pixkanaka gora egiten ari da.

"emakumezkoen futboleant maila handia dago eta pixkanaka gora egiten ari da"



Zelan ikusten zenuen Athletic nesken futbol taldea? Zure favoritoa al zen?

Nire ametsa betidanik izan da Athletic-en jokatu ahal izatea. Horregatik niretzat sorpresa handia izan zen deitu zidatenean.

Emakumezkoen eta gizonezkoen futbola

Desberdintasunak nahiz parekotasunak antzeman daitezke lehen bistara emakumezko eta gizonezkoen futbol taldeen artean. Hala nola, harrobiko nahiz euskal jokalariai dira Athleticen nesken zein mutilen taldean lehentasuna dutenak. Ordainsaria, profesionaltasuna eta komunikabideetan presentzia izateko orduan, aldiz, arras desorekatzen da kontua.

Nahi zenuen futbol taldean ari zara egun. Hiru denboraldi egin berri dituzu bertan. Atzera begiratuta zer-nolako irakurketa egiten duzu urte hauetaz?

Athleticen hasi nintzenez, *pasada* bat zen bai taldean jokatzeagatik bai nire favoritoak ziren jokalariekin ari nintzelako, telebistaz ezagutzen nituen horiekin...

Athleticen aritzeak profesionalizatu zarela esan nahi du, hortaz?

Beno profesionalizatu, profesionalizatu... Esan daiteke nesken futbol liga onenean nabilela.

Mutila bazina zure karrera profesionala erabat bideratua izango zenuke ordea...

Gu ezin gaitzke futboletik bizi, lan egin behar dugu edo ikasi.

Eta ez al da errealitate hura zapuztai-lea?

Beno, tira, hori da daukaguna eta guk jokotzen jarraitu behar dugu... ea egoera hobetzen den urteekin... besterik ez dugu.

Diruarena da alderik nabarmenena agian. Futbolak hainbeste diru mugitzen du, ez ordea, emakumeen kategorian...

Bai, horrela da. Oinarrizko gastuak egiteko diru kopurua dugu, baina ezin hitz egin nomina bati buruz.

“azken partida san mamesen jokatu genuen eta hor erabaki zen guztia. 25.000 lagun inguru bildu ziren bertan!”

Taldekieok horren inguruan eztabaidatu al duzue inoiz?

Guk ikusten duguna da gure egoera ez dela guztiz txarra, betiere Espainiako gainontzeko nesken taldeekin alderatuta. Agian talde horiek ordainsaria jasotzen dute, baina guk mediku onenak ditugu, bidaiak hegazkinez egin ohi ditugu eta hotel onetara eramaten gaituzte.

Superliga eta Kopa

Superligan irabazle izan dira Athleticen neskek aurtengo denboraldian. Poztasun handia igartzen zaio Zuriñeri. Dena den, eta elkarrizketa egin orduko, burua Kopan zuen gasteiztarrak. “Superliga lautan irabazi dugu baina Kopan behin ere ez, eta horretan gabiltza”, aitortu du. (Edizio hau ixterako athletic jada kanporatua zegoen Kopatik, Levanteren aurka galtzean, final laurdenetan).

Bostetatik lau, hauxe izan baita laugarren aldia Superligan txapel-dun zarete- la. Nola bizi izan duzue?

Nire kasuan, lehendabiziko txapelketaren eskuraketa Bartzelonan izan zen (2004/2005 denboraldia, Zuriñerentzat lehen urtea Athletic-en) eta oso ondo egon zen, baina aurten bereziagoa izan da. Azken partida San Mamesen jokatu genuen eta hor erabaki zen guztia. 25.000 lagun inguru bildu ziren bertan! Ostean, autobus batean Bilbotik ibili ginen ospatzen, jendea gu txalotzen aritu zela.

Jarraitzailerik ez zaizue falta ba...

Hori bai, 20.000 bat zale ditugu.

Nesken taldea ezin hobe eta mutilena, oster, estu eta larri... Hala ere, komuni-



kabideek mutilengan begiak...

Argi dago mutilen taldea lehen gauza dela, eta gu bigarren planoan geratzen gara, baina zer egingo diogu...

Emakumezko futbolari baten bizitza “profesionala” zein urtera arte mugatu dago?

25/30 urte tarte horretan mugitzen da; hala ere, lanaren araberak zaila iruditzen zait bietan jarraitzea, orain arte ondo eraman dudan arren.

Futbolari bakoitzak bere ezaugarriak ditu, zeintzuk dira zure berezitasunak?

Gogoa, jartzen dudana gogoa.

Eta teknika aldetik?

Nik nire buruari esatea... ez dakit...

Zure ametsa neurri handi batean bete egin da, Athletic-en jokatzea, alegia. Futbol jokalaria izateari dagokionez, zer-nolako bidea egitea gustatuko litzaizuke etorkizunean?

Euskadiko Selektzioan egon naiz, Espainiako Selektzioarekin Europako Txapelketa irabazi eta Mundial batean egon naiz... Egin daitezkeen gauza guztietatik piloa bete ditut, hortaz eskatuko nukeen gauza bakarra Athleticen jarraitzea da. Eta lesiotik ondo errekuuperatzea ■



rimatze-lanak ploterrak postalak logo
artelak k
alogoak
azkiak egu
ekariak fa
etazioa in
gotipoak
buruak katalogoak iragarkiak irudi

dalvez
maketozioa | inprimatze-lanak | diseinua
diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz
tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69
info@dalvez.com www.dalvez.com

hai
euskarari
nabizua
euskaraz

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskadik
behar zaitu

**EAJ
PNV**

PARRAL
TABERNA
Eguerditan, astelehenerik ostiralera
**JANTOKI
BEGETARIANO**
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA. 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

ZURE HARATEGIAK

**XABIER
AIZPEOLEA**
harategia
Florida Azoka 2 eta 3
Tl. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
Tl. 945 26 78 97

**Jose Luis
GARMENDIA**
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

ARTEPAN
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**ERROTA
HORTZ KLINIKA**
Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxa: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar · restaurante ·
albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo
Jantziak
San Antonio, 11 · Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 · Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltea
Matrikula zaituzte !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

IRVSTA TABERNA
Mateo Moraza 19
poteo eta pintxoak Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltea
• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
- Helduentzat • Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

JONATHAN RESURRECCION

“Politikariei herriaren hitzak ez die axola, boterea bilatzen dute”

Bizia, alaia... musikak mugiarazten duela dirudi. Hitz bakarrarekin zaila litzateke “Resu” definitzea. Izan ere, Legutioko ludotekan eta ambulanzia batean lanean aritzeaz gain, aurten bukatuko du ‘Mekanizazio bidezko ekoizpena’ heziketa zikloa. Halaber, asteburu gehienetan perkusio edo trikitixa jotzea egokitzen zaio. Aisialdian aldiz, legutiar honek soilik lagunak behar ditu gustura egoteko.

t. ainhua arriaga & naroa cuesta
a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Bizimodu osoa bizio bat da niretzat.

Bertuterik? Oso alaia naizela eta asko hitz egiten dudala.

Akatsik? Gehiegi hitz egitea akatsa ere izan daiteke.

Zer baloratzen duzu gehien zuregan?

Eta gainontzekoengan? Adiskidetasuna, legala izatea... gauzak ondo esanez gero, denetarik esan daiteke.

Zure gorputzaren atalik politena? Ez da ikusten... (barre artean). Sudurra esan beharko.

Fisikoki zerk erakartzen zaitu gehien gainontzekoengan? Ezin da esan... ipurdia.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Zoriontsu izatea, besterik gabe.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gezurrek, mesfidantzak... deserosotasuna sortzen didate. Gezurrak ez dira beharrezkoak bizitzan.

GEU aldizkaria eta elkartaren berri-

rik?, noiztik? Pare bat urtetik hona ezagutzen dut. Legutioko gaztegunean irakurri ohi dut.

Telebista saio bat? Ez dut telebistarik ikusten, pelikulak besterik ez ditut ikusten. Oso zinemasalea naiz.

Pelikularik gustukoena? ‘Snatch, cerdos y diamantes’. Gizartea zein politikari kritika egiten dieten pelikulak ditut gogokoen.

Liburu bat? ‘Odessa’ da irakurri dudana azkenengoa.

Oporrak non eta zertarako? Lagunekin banago lekuak ez dit axola. Jendearekin gustura banago edonora joango nintzateke.

Eguna ala gaua? Eguna nahiago dut.

Gasteizko gaua, non? Edonon baina lagunartean.

Musika talde bat edo musikari bat? Jazza gero eta gehiago gustatzen zait.

Kirol bat? Kick boxing, futbitoa...

Zer da Gasteizko duen onena? Eta txarrena? Jendea ezagutzeko ondo egon daiteke, baina alde txarrek ere baditu. Bestalde, azkeneko zortzi urtetan egondako gobernu taldea ez dut batere gustuko izan.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai,



baina askotan guk nahi ez dugulako ez dugu lortzen. Legution errazagoa izan beharko luke, baina ez ditugu bitartekoak jartzen.

Amets bat? Daukadan guztia inoiz ez galtzea.

Anekdotak bat? Behin, nire arrebarekin batera Bartzelonako eszenatoki batean trikitixa jotzen nengoela abestu beharreko kantaren letra ahaztu nuen. ‘Neska zaharrak’ abestiaren bigarren zatiaz ez nintzen gogoratu eta arreba arrazoi osoz haserretu zitzaidan.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Iraganean pentsatzea tontakeria hutsa da eta etorri beharrekoak helduko dira.

Zer eskatzen du herriak? Herriari ez zaio entzuten, hori da arazoa... Politikariei berdin zaie herriak zer usten duen, boterera heldu ostean nahi dutena egiten dute ■

EKIMEN PARTE-HARTZAILEAK: BESTELAKO SUSTRAIAK EREITEN

Gizarte parte-hartze ekintzak, herria bizirik dagoen seinale dira. Herria denona da, gurea, eta sortzeko eta aurrera eramateko ezinbestekoa da bakoitzak bere zerbait hori ipintzea.

t./a. narao cuesta & ainhoa arriaga

Baina zer ulertzen dugu parte-hartzeaz? Honi buruz hitz egiten dugunean, hauteskundeetara mugatzen gara askotan, baina herri parte-hartzea boto ematea baino askoz ere gehiago da. Ikus dezagun gasteiztarrok zer iritzi dugun honi buruz:

>Gasteizen herri parte-hartze ekintzetan aritzeko motibatuta gaudela uste duzu? Zergatik?

>Zer egin liteke motibazioa pizteko?

>Gasteizen herri parte-hartze aukera nahikorik dagoela uste duzu?

Aintzane Rubio, Zuzenbide ikaslea



Nik ezetz uste dut. Jendeak ez du parte hartzen ez dakielako ezer. Normalean politikariek zer egiten duten ere ez dute jakiten. Zergatik? Batez ere informazio nahikorik ez dagoelako, eta interes handirik ere ez.

Nire ustez jendeari gauza gehiago galdetzen saiatu beharko lirateke. Erabakiak hartzerantz doazenean herritarrok zer nahi dugun galdetu beharko ligukete.

Ez dago parte-hartze aukera nahikorik Gasteizen. Gizartean arazo asko daude, azken finean demokraziak ez duelako funtzionatzen, horregatik, jendeak parte hartzen badu ez du normalean ezertarako balio. Azkenean, agintean daudenek, besterik gabe hartuko dituzte erabakiak.

Francisco Sanchez, irakaslea



Gutxi, uste dut. Ni birritan joan naiz ekitaldi politikoetara eta oso jende gutxi zegoela iruditu zitzaidan.

Suposatzen dut eskaintza motibagarriak egiten zerbait lortuko litzatekeela. Horixe da falta zaiguna, leku fisikoak baditugu eta.

Nire ustez aukerak badaude, baina sormen apur bat falta da. Esate baterako, kultur ekintzetan gazteak eta hain gazteak ez direnak ere, parte hartzerantz anima daitezten.

Adrian Perez, ikaslea



Batzuk bai eta beste batzuk ez. Jende asko lasai bizi da, jende heldua batez ere, eta berdin die zer gertatzen den bere inguruan. Hauek, nahiago izaten dute lasai bizitzen jarraitzea.

Adibidez, gazte elkarteak sortuz helburu eta ideal berdinekin aritzeko. Zarata egiteko aukera beti dago, zerbait lortzea zailagoa ikusten dut. Hala ere, ahalik eta jende gehien batuta eraginkorragoa izaten da.

Daudenak baino gehiago egon beharko lirateke, Gasteizen gauza asko aldatzeke daudelako.

idazleak

AIREPORTUETAKO UKITU GEHIAGO

t. rikardo arregi




Gustatu zitzaidan Lourdes Oñederrak txoko honetan bertan urtarrilean idatzi zuen artikulua. Aireportuetako ukituez kezkatzen zen han: emakume zatar batek arakatu zuela goitik behera aireportuetan dauden kontrol horietako batetik igarotzean, eta aukeran nahiago izan zuela lan berbera egiten ari zen gizon ederraren eskuak zeregin horietan sentitzea. Barre egin nuen. Gizonak gizonekin eta emakumeak emakumeekin nahitaez biltzen duen arau absurdua kritikatzeko zuten Lourdes Oñederrak eta homofobiari egotzen zion, arrazoi osoz, errua.

Burura etorri zitzaidan Amsterdam hiriko aireportuan behin niri gertatutakoa. Alarma hotsa joarazi zuten nire gorputzak kontroletik pasatzerakoan eta polizia bat, gizona jakina, etorri zitzaidan azkar ni arakatzerantz. Polizia ni baino altuagoa zen (bi metro luze), atsegina eta, zinez, egutegi morbosoa horietako batetik atera berria zirudien. Aitortu behar dut (badakit gauza hauek ez direla politikoki batere zuzenak) gustura utzi niola nire gorputza ukitzea irribarrea aurpegian nuela, erraztu niola lana hitz gutxitan. Konturatu omen zen bera; luzatu zuen, eta moteldu, irribarretsu, begiak begietan, metal zatiaren bilaketa antzua txoko diskretuago batean. Zapatak izan ziren errudunak, azkenik. Alderantzizko papera ezinezkoa zenez, ni arakatzaila, bera arakatu, penaz joan nintzen eskuak tinkatu ostean.

Homofobiak mendeetan eraiki dituen harriesietan pitzadurak agertzen dira etengabe, arrakalak, zirrikitu pentsaezinak. Zirrikitu horietatik pertsonak eta bihotzak (Lourdes Oñederraren hitzak berriro gogoratzeagatik) lerratzen dira behin eta berriro. Batzuk beldurtzen dira zirrikitu horien presentziak jabetzen direnean, uste dute seguru daudela harriesiaren bere aldean, gauzak ematen duten bezala direla. Tentuz ibili. Askok gara pikotxa eta pala erabiltzen dakigunok ■

geugaiia

 0069-SEX

I. Sal3n Internacional Er3tico de Euskadi - Euskadiko Nazioarteko I. Areto Erotikoa

EUSKALSEX

www.euskalsex.com

20-21-22-07-2007 - La Casilla (Bilbao)

V. 16:00 - 02:00 · S. 16:00 - 02:00 · D. 12:00 - 22:00

EUSKARAZ LARRUJOKA

Izara artean euskara hedatu nahi du Euskalsexek. Sexua eta euskara uztartzeko asmoz sortu baita Euskadiko Nazioarteko I. Areto Erotikoa. Euskaldunek bero jartzeko aukera izango dute uztailaren 20tik 22ra Bilboko La Casillan egingo den topaketan.

DVD A 6€

t. edurne begiristain
a. edorta sanz

Hiru helburu nagusi erdiesteko asmoz egingo da areto erotikoa: euskararen erabilerara sustatzeko industria porno-erotikoen teknologietan, produktueta zein adierazpen artistikoetan; etorkizuneko euskal aktoreen promozioa bultzatzeko; eta euskaldunen artean sexu kontsumoa normalizatzeko. Porno eta erotismoaren inguruko eztabaidak, liburu aurkezpenak, pelikula emanaldiak, kontzertuak, jostailuak, argazki erakusketak edota sexua zuzenean, bes-



teak beste, eskainiko ditu Euskalsexek. Adinez nagusi den oro gonbidatuta dago sexuaz gozatzera.

Katalunia aitzindaria izan da betidanik jaialdi erotikoa eta pornografikoetan. Hortxe dugu dagoeneko hamabost urte bete dituen FICEB Bartzelonako Zine Erotikoren Nazioarteko Jaialdia, eta horren atzetik antolatu diren Bartzelonako Zine Gay-ren Jaialdia eta Manresako *Sexe en catalá* Areto Erotikoa. Eta hain justu, Manresako topalekua eredutzat hartuta, Carlos Resa kazetari eta zinegile gasteiztarrek Euskal Herrian topaketa egiteko erabakia hartu du. "Gizarte bitxia da gurea, kontserbadorea eta liberala aldi berean, eta pentsatu nuen halako jaialdi batek ongi funtzionatu zezakeela hemen ere", adierazi digu. Pentsatu eta egin. Jostailu erotikoa eta film pornografikoen salmenta, bikote-trukaketa, zuzeneko sexu-ikusketak, Kote Cabezudo argazkilarik donostiarren erakusketak eta musika emanaldiak tartekatzen dituen Euskal Herriko topaketa beroena antolatu du hilaren amaierarako. FICEB eta Heatgay zinemaldiaren antolatzaileen sostengua lortu du ekimena aurrera ateratzeko.

Resak hasieratik argi izan zuen Bilbo zela tokirik egokiena areto erotikoa antolatzeko, "biztanle gehien dituen hiriburua delako, ongi kokatuta dagoelako eta La Casilla kirol pabilioia egokia delako halako ekimen bat antolatzeko". Gainera, gasteiztarrekin eta donostiarrekin alderatuta, bilbotarren pentsaera "askoz irekiagoa" delako aukeratu zuen Bizkaiko hiriburua topaketa burutzeko.

Ikuskizuna ziurtatuta dago Euskalsexek.



noiz: uztailak 20-22
non: *bilboko la casilla*
ordutegia:
ostirala 20: 16:00-02:00
larunbata 21: 16:00-02:00
igandea 22: 12:00-22:00
sarrerak:
egun bakarra: 20 euro
3 egunetarako abonua: 50 euro

Izan ere, hainbat zinegile eta antzezle pornoren partaidetza izango du areto erotikoa: Nacho Allende *Torbe*, Anna Ilona Staller *Cicciolina*, Anastasia Mayo, Dunia Montenegro... denak izango dira Bilbon, era guztietako ikuskizun pornografikoak eskaintzeko. Resak azaldukoaren arabera, "kultura eta azoka" uztartuko dira aretoan. Hala, Oscar Urbiolak Sexuaren Entziklopedia aurkeztuko du; Kote Cabezudo argazkilarik erotismoaren inguruko bere lehenengo erakusketak agertuko du; sexua eta politikaren inguruko mahaingurua antolatu dute...

Aretoan hiru eszenatoki eta bi plataforma izango dira. Denetan ikuskizun erotikopornoak paratuko dituzte, eta guztietan ikuslearen parte-hartzea posible izango da. Gainera, Felliniak taldearen antzerki-kabareta, Ugarte anaien musika festa, edota *Eztarri sakona* gisako txapelketekin asperetzeko aukerarik ez dute izango Euskalsexera hurbiltzen direnek.

Plazera, euskaraz

Beraz, ongi pasatzea euskarari lotuta egongo da jaialdian, eta horretarako hainbat ekimen abiatuko dira. Batetik, euskara eta erotismoa uztartu nahian, salmenta mahaietan sex shopeko produktu asko euskaraz etiketatuta egongo dira lehen aldiz. Horrez gainera, Euskalsex-eko antolatzaileek sexuari buruzko euskal hiztegia martxan jarri dute Interneten; www.euskalsex.com webgunean sartuta, *Hiztegi sexuala* atalak ematen du horretarako aukera. Momentuz internautek hitz gutxi batzuk sartu dituzte hiztegian (alua, hazia isuri, hirukotea, titiak,

txortan egin, xurripada...), baina oraindik hutsune asko daude betetzeko, eta jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da.

Duda barik, ekimen bitxiarena eta erakarriena euskaraz itzulitako lehen film pornoaren estreinaldia izango da. 'Deabruak nire izena daki' pelikula Ruta 69 Films-ek ekoiztu du eta Santi Hard eta Kanenek zuzendu dute. Euskarazko bikoizketarekin gure hizkuntzaren alde harri-koskorra jarri nahi izan du Euskalsex-eko zuzendariak, modu sinbolikoan bada ere. "Gisa honetako pelikulak kontsumitzen duena ez dago espreski elkarrizketei arreta jartzeko, baina norbaitek egin behar zuen euskarara bikoizteko pausoa, eta gu izan gara", dio Resak.

Hurrengo urratsa euskarazko film porno bat egitea litzatekeen arren, ia ezinezkoa dela aitortzen digu Euskalsex-eko zuzendariak. Izan ere, Euskal Herrian ez dago apenas aktore pornorik, eta gainera, ia inor ez da ausartzen pausoa ematera, herri txikia izanik laster "etiketa" jartzen zaiolako. Nolanahi ere, gurean pornoaren industriak ez ditu bizi garai oparoenak, Internet-ek kalte handia egin diolako eta AEBetako eta Europa erdialdeko merkatu erraldoiak dena jaten ari direlako, eta beraz, Euskal Herrian porno ekoizpenak etorkizun latza daukala azpimarratu digu Resak.

Hala ere, topikoek diotenaren kontra, Euskal Herrian, munduko edozein tokitan bezala, pornoa kontsumitu egiten dugu eta sexua praktikatu praktikatzen dugu. "Gaiak tabu izaten jarraitzen du, baina munduko beste herrietakoak bezalakoak gara, berdin jotzen dugu larrua, berdintsu kontsumitzen dugu...", azpimarratu du. Gizonek emakumeek baino gehiago kontsumitzen duten arren, biek ala biek dute gustuko pornoa, "emakumeari eta gizonari gauza berberak gustatzen zaizkie eta".

Horregatik espero du Euskalsex Aretora emakume asko joatea, nahiz eta jakin badakien gizonezkoak izango direla hurbilduko diren gehienak. Bartzelonako jaialdian berdinez doaz urtez urte emakume eta gizonen presentzia, eta parekotasun hori denborarekin Bilbon ere ematea nahiko luke Resak. Hala ere, momentuz, parte-hartzea handia izatearekin konformatzen da: "Helburua da joaten denak ongi pasatzea, berdin du neska ala mutila izan". Noski, gonbita euskaldunei zein erdaldunei luzatuta dago, Euskalsex-eko ikuskizun guztiak elebidunak izango baitira. Bete beharreko baldintza bakarra adinez nagusia izatea da. Gainerakoa, gozamenaren esku dago ■



carlos resa kazetari eta zinegile gasteiztarra, euskalsex-en zuzendaria da



euskalsex.com



Eguzkitako betaurreko guztiak,
zure itxura eta
begiak babesteko.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS



Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

CHANEL PRADA Ray-Ban arnette Silhouette Calvin Klein FENDI VOGUE Pepe Jeans bonardi OAKLEY GIORGIO ARMANI

GIZON ORKESTREN BAKARDADEA

TESTUA: JULEN AZPITARTE

ONE MAN BAND (OMB) EDO GIZON ORKESTREN FENOMENOA —EMAKUMERIK EZ DUGU AURKITU; BERAZ, JATORRIZKO IZENDAPEN MATXISTA ERABILIKO DUGU— HERRI MUSIKAKO ESTILO ZAHARREKIN LOTUTA DAGO; 50EKO HAMARKADAKO BLUESAREKIN ETA ROCKABILLYAREKIN.

Memphiseko country blues estiloaren aldaera berezia da One Man Banden fenomenoa, eta Joe Hill Louis eta Doctor Ross musikariak dira ordezkari nagusiak. Ezin ahaztu, hala ere, Hasil Adkins rockabilly estiloko musikaria: tresna guztiak batera joz, 7.000tik gora kanta idatzi omen zituen.

Louisek eta Rossek, gitarra jotzeaz gain, lepotik zintzilik zuten harmonikari haizea ematen zioten. Eta, oinekin, bateriaren danborrak eta txindatak astintzen zituzten. Gitarra antzera jotzen zuten: haien estiloa ez zen blues soloetan oinarritzen, gitarra riff-etan baizik, boogie doinua nabarmenduta.

Sasoi hartan, Memphis musikariz gainezka zegoen, eta merkeagoa zen musikari bakarra kontratatzea banda osoa hartzea baino. Horrek lagundu egin zien arrakasta lortzen. Gaur egun, formatu horren iratzaraldi txikia dugu, punk-rock eta rock and roll undergroundaren esparru ilunenetan sortzen ari diren musikari bakartiei esker. Hona hemen bakardadearen arriskuari

muzin eginda oholtzara igo ziren eta oraindik ere igotzen diren gizaki orkestra xeble batzuk.

Doctor Ross (1925-1993). 50eko hamarkada amaieran lortu zuen ospea. Oso ezagun bihurtu zen, boogie gitarra riff itzelak jotzen zituelako, John Lee Hokkeren erara, eta harmonika ozen entzunarazten zuelako, Sonny Boy Williamsek egiten zuen bezala. Bere kanta ezagunenetariko bat —Cat Squirrel— Eric Clapton-en Cream bandak egokitu zuen, 70eko hamarkadan. “Chicago Brakown kanta inoiz entzundako grabazio onenetariko da”, esan zuen Sam Philips Memphiseko Sun Records zigiluko arduradunak —diskoetxe horretan erein zuten rock and roll-aren hazia—. Ross ezkerria zen, eta instrumentu guztiak aldrebes jotzen zituen.

Joe Hill Louis (1921-1957). Musikari ospetsua izan zen 50eko hamarkadan Memphisen. Irrati esataria ere bazen, eta estudioan, BB King gaztearekin jo izan zuen zuzenenean. Lehen urteetan harmonika jotzen zuen arren, denborarekin, bateria

eta gitarra jotzen ikasi zuen. Tipo irribarretsua zen Louis. Beti dotore jantzita zebilen. Eta arrakasta handia omen zuen emakumeen artean: ezkontuta zegoen, baina asteko egun bakoitzean emakume batekin ibiltzen zen. Berak ere Sun Records zigilu mitikoarekin grabatu zuen. Bere doinua gordina zen: purua, basatia eta leundu gabea. Louis gazte hil zen, tetanoak jota, 1957. urtean; antza, etxeko lorategia zaintzen ari zela eskua moztu zuen eta, gainera, handik astebetera, auto batek harrapatu zuen. Bi ezbeharretako zeinek eragin zion heriotza ez dago bate-re garbi.

Hasil Haze Adkins (1937-1985). Erabat ezezaguna izan zen 50eko eta 60ko hamarkadetan; New Yorkeko Norton Records diskoetxeak 80ko hamarkadan bere musika ezagutarazteko egindako ahaleginari esker izan genuen Adkinsen berri. Bederatzi edo hamar anaia-arrebetan gazteena zen Adkins. Ama 1985ean hil zen arte, berarekin bizi izan zen beti. Amak prestatzen zion jana eta berak zaintzen zuen. Ama hil ondoren, lur jota gelditu zen musikaria. Txikitan, Adkinsek hillybilly, country eta bluegrass estiloetako disko zaharrak entzuten zituen. Gabazioetan entzuten zituen doinuak batera grabaturik zeudela uste zuelako bilkatu zen gizon orkestra. 7.000tik gora abesti idatzi zituela eta 2.000 bertsio buruz jotzeko gai zela diote. Horrez gain, berak egiten zituen bere instrumentuak: tutuak, botilak eta pitxerrak musika tresna baliagarriak ziren. Kantetan jorratutako gaiak, bestalde, rockabilly estiloaren kliseetatik urrun zeuden: buruak mozteari, kakahuetea jateari eta emakumeak izutzeari buruz abesten zuen.

Garaikideak

Esan bezala, gizon orkestra garaikide asko dago munduan. Gehienak, rock and roll underground eta punk-rock esparruetatik datoz. Hona hemen lagin bat:

Mark Sultan/BBQ. Kanadiarra da, eta besteak beste, Sexareenos rock and roll taldeko kide izan da. Aspalditik One Man



The Legendary Tigerman
One Man Band

Band formatuarekin aritzen da. Distortsioz beteriko gitarra jotzen du, eta oinekin bonboa eta panderoa astintzen ditu. Sustraidun rock and roll-a jotzen du, melodia baztertu gabe. Sexareenos bandan lagun izandako King Khan soulman-arekin, King Khan & BBQ egitasmoa ere abiatu du; hor ere gitarra eta bateria jotzen ditu batera. Bikote gisa primerako bi disko argitaratu dituzte.

John Schooley and His One Man Band. Schooley estatubatuarra The Revelators hirukoteko gitarra jotzaileetako bat zen. Crypt diskoetxearekin disko bakarra argitaratu zuten —beste bat omen dago grabatuta, baina ez dute sekula kaleratu—. The Revelators desegin ondoren, Hard Feelings bandarekin aritu zen. Tartean, hiru single argitaratu zituen One Man Band formatuarekin. 2005ean, Suitzako Voodoo Rhythm rock and roll diskoetxearekin, lan luzea argitaratu zuen; diskoan blues bertsiio sorta ederra bildu zuen. Blues disko biribila da. Orduz gerotzik, beste hiru single kaleratu ditu diskoetxe banarekin.

Bob Log III. Tucson (Arizona) hiriko bluesman hau Chuck Berry, Bo Diddley eta Fred McDowell-en doinu klasikoekin maitemindu zen gaztetan. Lehendabiziko egitasmo serioa Doo Rag bikotea izan zen; musika eta zarata hotsak sortzen zituzten hodiak, garagardo kaxak eta ile lehorgailuak erabilita, besteak beste. Ondoren, bere talde propioa abiatu zuen: gizon orkestra formatuko blues banda xelebrea. Chicagora lehen kontzertua eskaintzera zihola, bi-

dean geldialdia egin eta moto gidariek erabiltzen duten kaskoa erosi zuen eta telefono bati lapurturiko mikroa gehitu zion. Gerotzik, ez du kaskoa kendu. Zuzenekotan slide gitarra, bonboa, txindatak eta erritimo kutxa jotzen ditu.

The Legendary Tigerman One Man Band. Portugaldarra da, eta Joe Hill Louisen abesti batetik hartu du ezizena. Portugalen inoiz emandako rock and roll banda onenean aritu ondoren —Tedio Boys—, gizon orkestra hasi zen. AEBetako blues kanta tradizionalak jotzeaz gain, Bo Diddley eta Hadsil Atkins artista zaharren bertsiok ere egiten ditu.



Doctor Ross

90.000

kilo arrain iristen dira egunean, batez beste, Gasteizko aireportura hegazkinenez. Arrain gehiena Ameriketatik eta Hegoafrikatik iristen da Euskal Herrira. Beraz, ez Bermeo, ez Ondarroa, ez Getaria, ez Hondarribia; Euskal Herriko portu nagusia Forondako aireportua da. Eta kontrakoa uste arren, jaten dugun arrain gehienak ez du "euskal labela". Esanguratsua.



720

euro irabazten dituzte, hilean, Barakaldoko MegaPark merkataritzagunean lanaldi osoko kontratua duten langile gehienek —lanaldi erdikoeak 354 euro irabazten dute—. ELA, ESK eta CNT sindikatuek eta Barakaldoko zenbait elkarrek egindako azterketaren ondorioa da. Mila euroko soldata txiekiegi zela uste zenuen, ezta? Negargarria.

gaztezulo.com

sexua·gaupasa·egun pasa·musikaz·sarezulo·hitzorduak·zinemaz·ikasi bai, baina mundua·fotografikoak·literatura·teilatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeokak·komikiak

GEU. 15. URTEURRENA. IDAZLEEK GALAN IRAKURRI / ERREZITATUTAKOAK



KARMELE JAIO

PINK

Kolore arrosari gorroto diozula esan zenidan behin, elkar ezagutu eta gutxira, zutaz maitemindu nintzen egunean. Txikitatik arrosaz jantzi gintuztela bai zu eta bai ni, bestelako aukerarik gabe, neska jaio ginela-ko, eta seguru aski ordutik diozula gorrotoa kolore horri.

Gatz gabea, motela eta gainera zikina dela arrosa kolorea. Horrela esan zenidan. Garbigailuan niki gorriarekin sartutako bularretako zuriak bezain lohi itxurakoa. Hilekoaren odolarekin zikindu eta lababoan guztiz garbitu ezineko kuleroena bezalakoa.

Arrosa ez dela kolorea, lohidura bat baino, orban bat, garbia ez den zerbait. Horregatik ezarri digutela emakumeei, hilean behin gure alde zikina gogoan izan dezagun, ez garela guztiz garbiak, etengabe egon behar dugula gure gorputza garbitzen, gure pentsamendu zikinak zuri-tzen.

Elkar ezagutu eta gutxira zutaz maitemindu nintzen egun hartan, ez nuen hitzik aurkitu, baina gaur, gure emakume gorputz biluziak izara hauen artean bat egin ondoren, esan nahi dizut, nik ez dudala lohirik ikusten arrosa kolorean. Ume jaio berri baten azal errugabea ikusten dut nik arrosan; gorriaren pasioa ikusten dut, zuriaren argitasunak biderkatuta; muxuen kolorea; nerabe baten ahotik irteten den marru-bizko txiklearen usaina; haur batek plastidecor arrosaz margotutako pertsonen aurpegiak, besoak; zure desioaren ataria ikusten dut; nire esku barruen kolore epela, zure azala laztandu ondoren.

Ez daukat nik ezer arrosaren kontra. Aldiz, masailetan elutxak ikusten ditut, irribarre baten aztarna, arrosa kolorea gogora ekartzen dudanean. Hori guztia esan behar dizut, oraintxe, dutxatik bueltan zatozenean. Plastidecor arrosaz margotutako zure gorputz biluzia gelan sartzen ikusten dudanean.



GERARDO MARKULETA
EZJAKINTASUNAK

Ez dut sekula ondo jakin
ezagun berri bat
agurtzen noiz hasi.

Zehatz ez dut inoiz jakiten
nori agur esan
buru keinu batez,
nori esku biak
berokitik kanpo,
noiz eskua eman,
noiz besarkada bat,
nori egin
-gura barik-
ez ikusi.

Behin ere ez dut asmatzen
noiz masaila eman,
noiz ezker eskua,
noiz ezpain mutturra;
ez noiz behar duten
bi izan musuak,
noiz hiru, edo bat.

Ez dut sekula ondo jakin
noiz hurbildu,
noiz urrundu,
noiz gelditu
ezagun berria
ezagutu guran.
Zehatz ez dut inoiz jakiten
izen berriren bat
agendan noiz sartu,
izen bat noiz pasa
agenda hiletik
agenda berrira,
eta noiz ez. Eta
agendetatik noiz
behin betiko kendu.



PATXI ZUBIZARRETA

15 vs 100

FLORIDA PASEALEKUAN ZOAZELA, kultur etxetik Prado aldera, jendea lasterka ikusi duzu, eta oinezkoen semaforo berdea keinuka, zarataka. Zu ere lasterka hasitekotan egon zara. Baina, ez jakin zergatik, astiro jarraitu duzu.

Ramón y Cajal kalera iristean, autoak ziztu bizian doaz, batez ere abenida aldera doazenak. Korrika doa bizitza. Beste norabidean doazenek, bihurtune estuaren aurrean ez dute askorik azeleratzen. Bihurgunetsua da bizitza. Eta bitxia: zure ezkerretara ama bat kokatu da, haur lokartua silan dakarrela. Baina, handik gutxira, zure eskuinera agure burumakur bat agertu zaizu, aulki gurpilduna zaintzale hego-amerikar batek dakarrela. Zerbait esan dio aitonari, baina zuk soilik "mi solecito" ulertu diozu.

Eta bat-batean semaforoko gizonilo gorria berde jarri da, eta 17 zenbakia nabarmendu da berdez, eta semaforoa berriro hasi da keinuka, zarataka. Zure alboko guztiak alde egiten ikusi dituzu, eta paretik datozenak saihesten. Baina zu, ez jakin zergatik, harria baino geldiago geratu zara, begiak gizonilo berdearen azpiko pantailan iltzaturik: 17, 16, 15... Oinezkoak ere azkar doaz, eta berdea berehala itzaliko dela dakitenak korrika hasi dira: 14, 13, 12... Orain, autoak zain daudela, Floridako kioskotik datorren musika klasikoa entzun duzu argi, Mendelssohn, semaforoaren zarata urduriak etena: 11, 10, 9... Aurrez aurre emakume bati heltzen dion gizona ikusi duzu, gizon itxurosoa, gizon itsua. Hotzikara sentitu duzu 8arekin, eta 7arekin, eta 6arekin. Gizonak beharbada musika, entzun, entzun du, baina ez dauka zuhaitzetako hostajearen berdea ikusterik: 5, 4, 3... Azken zenbaki horiekin, azken aukera horrekin, zuk ere aurrera egiteko bulkada sentitu duzu. Hori bera pentsatzen ahal dute semaforoari eta zuri begira dauden lehen lerroko gidariek: 2, 1, 0.

Eta zuk, geldirik, erlojua atera duzu. Ziur zaude oinezkoen 17 segundu horiek azkarregi doazela, ez direla segundo izatera ere iristen alegia. Baina orain autoek pasatzeko zenbat denbora duten neurtu nahi duzu. 1, 2, 3... Autoak dagoeneko deabruak hartuak doaz. Azkar doa bizitza. Oinezko bat ere azkar saiatu da autoak saihesten. Bozinaoak, 4, 5, 6... Noiz edo noiz errepidean zapal-zapal eginik ikusi izan dituzun usoak etorri zaizkizu gogora. 7, 8, 9... eta 10, 11, 12 auto, dozenaka, 13, 14, 15. Guztira minutu eta 40 segundo zenbatu duzu, hau da, oinezkoen 17 eskas-en aldean autoentzat 100 segundo. Oinezkoek baino bost bider denbora gehiago.

17, 16, 15... hasi da berriro ere semaforoa, keinuka, zarataka. Eta orduan ikusi duzu. Aurrez aurre datorkizu: lirain, xarmant, oro begi berde. Eta, ez jakin zergatik, errepidea zeharkatu gabe geratu zara, eta, itzulbidea harturik, hari segika abiatu zara. Poza hartu duzu Floridako kafetegiko terrazan esertzen ikusi duzunean. Poza hartu duzu haren alboko mahaian eseri eta, telefonoz hizketan ari dela, bere zenbakia ozen esan duenean. Gogoratzen erraza da eta 17rekin amaitzen da. Eta hark telefona poltsoan sartzearekin batera hartu duzu zuk zeurea, eta bihotza duzu orain ziztu bizian eta pilpiraka dabilkizuna, batez ere azken 1 eta 7a sakatzean.

Berde dago orain semaforoa. Berde, parkea. Berde, zure bihotza.

TXIKI TOSTADO

rapsodak errezeitatutako olerkia
[AMAIA LASA poetaren 'ordu min-
duak' liburuko poema]

amodioaren amorantea
naizelako
ez dut
ez etxerik
ezta lurralderik
ezta amoranterik ere.
behar dut
bizirik zaudela jakin
zure tximistarekin
surik ez egin huts
behar zaitut behar
bizirik zaudela jakin.
maitasunak mindu du
amodioaren amorantea
bi larrosa, hirugarrena?
biok egin dezakegu



BADATOR JAZZAHARREAN 2007, GASTEIZKO ALDE ZAHARREKO JAZZ JAIALDIA

Asteartea uztailak 3

20:00 KITSCH tabernan
EL QUINTETO DE LA MUERTE
21:30 PARRAL tabernan
DOWN HOME

Asteazkena uztailak 4

20:00 GORA tabernan
KEBAB
21:30 KITSCH tabernan
BENDER vs FLEXO

Osteguna uztailak 5

20:00 PARRAL tabernan
BEMSHA BOUNDS
21:30 GORA tabernan
ORGANICTRIO (Jordi Matas Trio)

Ostirala uztailak 6

PARRAL & GORA & KITSCH
GAUEZ DJak
SILUM SOUNDZ

Asteartea uztailak 10

20:00 KITSCH tabernan
SHADE
21:30 PARRAL tabernan
SLUM QUARTET

Asteazkena uztailak 11

20:00 KITSCH tabernan
ELECTRIK VOICE QUINTET
21:30 GORA tabernan
BOTXO BOOGIES

Osteguna uztailak 12

20:00 GORA tabernan
J.P. BALCAZAR QUARTET
(featuring MIGUEL FDZ. VALLE-
JO)
21:30 PARRAL tabernan
W QUINTETO

Ostirala uztailak 13

GAUEZ DJak
PARRAL & GORA
BASQUE RADICAL FUNK
KITSCH
SORPRESA (erne hip-hoparen
maitaleak)



parraleko iñaki lazcano eta gorako iker arroniz, jazzaharrean-en antolatzaileak

Jazza Gasteizko Alde Zaharrera hurbiltzea posible dela frogatuko dugu berriz ere. Gainean Jazzaharrean 2007 baitugu, jaialdi honen bigarren edizioa. San Frantzisko Xabier kantoian kokatutako Parral, Gora eta Kitsch tabernen ekimen honek hiriko alde zaharra jazz musikaz blaituko du uztaileko lehenengo bi asteetan. 6 egunetan 12 kontzertu zuzenean eta hurbilean gozatzeko aukera ezin hobea.

“gasteizko jazz jaialdi internazionala, elitista, garestia eta zonalde batzuetara mugatua da eta ez da hiri osora iristen”

“gasteizko gaztetxean, uztailearen 13an, sorpresa: jorge pardo eta beste bost musikari 2 orduko jam sessionean arituko dira”

t. maite lekue

a. edorta sanz

Jazzaharrean, nolatan?

Alde Zaharra jazz musikaz bete nahi izan dute Parral, Kitsch eta Gora tabernako lagunek. Aspaldian buruan zeukaten ideia batetik abiatu eta kantoiko hiru tabernak elkartzearen ondorioz, auzoan zegoen behar bati erantzuteko jazz auzora hurbildu nahi izan dute. “Gasteizko Jazz Jaialdi Internazionala, elitista, garestia eta zonalde batzuetara mugatua da eta ez da hiri osora iristen”, diosku Iñigo (Txunbi) Parraleko kideak. Horrexegatik taberna hauen urteko eskaintza kulturalaren programazioa amaitu eta gero, udako garaia hasteko Jazz jaialdia antolatzeari ekin diote aurten ere. Horretarako iazko esfortzuak bikoiztu egin behar izan dituzte. Aurtengo programazioa iazkoaren aldean bikoitza datorrelako. “Iaz 8 kontzertu eta DJ session bat izan bagenuen, aurten 12 kontzertu eta DJ session bi izanen dira”, dio Ikerrek, Gorako kideak.

“Gasteiz eta Euskal Herri mailan dauden jazz taldeei aukera luzatu nahi zaie gurean jotzeko, baita sortu berri diren talde gazteei ere, askotan beste espazio batzuetan jotzeko aukerarik ematen ez zaielako”, esan digute Jazzaharreko antolatzaileek, eta horren harira aurtengo edizioan bertako 6 talderen zuzenekoarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Jazzaharrean 2007

Aurtengo kartela erritmoz bete-beteta dator. Swing, latin jazz eta boogie doinu eta sentimenduak nagusituko dira emanaldietan. Erritmoa eta espektakulua. Lotutako kontzertuak, taberna batetik bestera joateko aitzakia aparta. Eta beste

jaialdi batzuetan ez bezala ez da promozio basatirik jasan beharko, ezta edarrietan prezio eskandalagarriarik ordaindu beharko ere. Jazza denontzat eta eskuragarri, dohain alegia. Ez al da uztaile jazz musikaren hilabetea? Ba nabaritu dadila!

Iazkoari so

Iazko esperientzia oso baikortzat jo dute, “giro ezin hobea izan zen hiru tabernetan, jendea oso pozik zebilen eta kontzertu batetik bestera ibiltzeak arrakasta izan zuen”, aipatzen du Iñigok. Alde Zaharrari bizia eman nahi diotela esaten digu, aldiz, Ikerrek, eta aurten kantoian ezarririk aldapa mekanikoak kalea eta bertako giroa mozten dituela dio.

Hainbat gomendio

Gure bi elkarrizketatuek (Iñigo eta Ikerrek) bereziki honako kontzertu hauen gomendioa luzatzen digute:

Iñigok duda barik Down Home ikustera joateko esan digu. Bestalde, Ikerren esanetan, Balcazar Quartet eta Bender vs Flexo dira Jazzaharrerara hurbiltzeko aitzakia bikaina.

Jorge Pardo ere bai

Jazzaharrean 2007, Gasteizko Alde Zaharra jendez betetzeko, jazz hurbiltzeko, auzoaren bizia aldarrikatzeko eta Gasteizko Jazzaldi Internazionalari alternatiba eskaintzeko aukera aproposa. Aurtengo egitarauan antolatu 12 kontzertuez gain, Gasteizko Gaztetxearekin kolaborazio bat egin nahi izan dute eta Jazza muinoko etxeraino igo: adi egon, uztailearen 13an, ostiralarekin, Jorge Pardo eta beste bost musikari 21:30etik aurrera Jam Sessionean arituko baitira ■

www.jazzaharrean.com webgunetik ateratako informazioaren arabera hauek dira gomendatutako taldeen erreferentziak:

DOWN HOME

“Neo swing, crazy bluesin', shaky rhythm eta groovy boogie” musika lau urtetan zehar egin ondoren, Down Home taldea Bartzelonako gau musikalen klasiko bat bilakatu da. Talde honek argitaratutako disko bat du kalean eta bere jarraitzaileak egunero hazi egiten dira taldearen zuzenekoak mundialak omen direlako.

Down Home taldearen musika doinuak 50. hamarkadako swing musika gogoraraziko digu. Down Home tadeak boogie-a esnatuko du, XXI. mendeko ikutuak uztartuz.

J.P. BALCAZAR QUARTET featuring MIGUEL FDEZ. VALLEJO

Hiri usainduna da Balcazar Quartet proiektua. Hiri arteko jazz, rock, pop eta free doinuen zertzeladekin. Haien erreperitorioa kontraste handiz osatuta dago eta istorio triste eta alaien bata-suna biltzen dira bertan. Gasteiztik.

BENDER vs FLEXO

2004. urtean osatzen da talde trinko bezala bere taldekideak proiektu desberdinetan parte hartzearen ondorioz. Teknologia berriekin jolastea, esperimentazioa lantzea eta musika elektronikotik heldutako erritmoak batzea dira taldearen nortasuna. Jazzaren bat-batekotasuna eta drum n´ bass, jungle zein electrofunk estiloeetatik eratorritako doinuak eskaintzen ditu Bender vs Flexo-k. BCN.

GAZTE EGONALDIAK 07. BERNEDON ENTZUN GAITZATELA!!!

Aurten izango da Gazte Egonaldia 07 ekimen berritzailea aurrera eramango duten lehen aldia. Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, gazteak ikus-entzutezkoen mundura hurbilduko dituzten egonaldiak izango dira hauek. Besteak beste, graffitigintzan, film laburren produkzio lanetan eta irratigintzan murgilduko dira gazteak.

NON: bersedon

NORENTZAT: 12-17 urte bitarteko gazteentzat

NOIZ:

1. txanda: uztailaren 8tik 15era
(12, 13, 14 urtekoentzat)

2. txanda: uztailaren 15etik 22ra
(15, 16, 17 urtekoentzat)

EDUKIA: ikus-entzunezkoak



- protagonistak eurak izatea da asmoa
- nerabezaroan sartzen direnean hizkuntzari begira beraien portae-rak zehazten hasten dira
- nafarroatik, iparraldeketik eta arabatik etorri zaizkigu gehienak
- araba berdea eta menditsua ere badela ikusiko dute

NAGORE AMONDARAIN, EGONALDIEN
KOORDINATZAILEA

t. ainhoa arriaga

a. edorta sanz

Nagore Amondarain Arabako Ikastolen Elkarteko sustatzaile eta egonaldien koordinatzaileak, aipamen berezia egin nahi izan dio Hala Bedi Irratiarekin izandako lankidetzari, gazteentzat oso aukera polita eta interesgarria delakoan.

Zein da gazte egonaldi hauen helburua?

Euskararen motibazioan eragiteko origina eta berritzailea den zerbait egitea zen gure helburua eta horretarako ikus-entzunezkoen gaia hartu genuen bide bezala. Protagonistak eurak izatea da asmoa, gidaritza beraiek eramango dute nahiz eta begiraleak ere egongo diren lanak bideratzen laguntzeko.

Zergatik 12-17 urte bitartekoentzako eskaintza?

Adin hori oso esanguratsua dela uste dugu. Nerabezaroan sartzen direnean hizkuntzari begira beraien portaerak zehazten hasten dira, identitate bat lantzen. Eta identitate horretan erabaki behar dute a nahi duten ala b nahi duten, hau da, zuria ala beltza nahi duten.

Zergatik ikus-entzunezkoak?

Ikusten genuelako horren inguruan gauza handirik ez zegoela landuta. 12-17 urteko gazteentzat irrati libre bat ezagutzeari, kasu honetan Hala Bedi Irratia, oso erakargarria izango delakoan gaude. Gazteek aukera izango dute irratsaio bat edo ateratzen direnak sortzeko eta emititzeko. Laburrena ere, pil-pilean dagoen kontua da, irudien munduan bizi baizik. Graffitiarekin, betidanik oso erdalduntzat jo dugun mundua izanik, euskaraz ulertzeko modua ere badagoela ikusteko aukera izango dute. Lan horretan aipatzekoa da, Entzun aldizkariak eskaini dizkigun aleek ere beren eragina izango dutela, aisialdian euskaraz bizitzea posible dela erakusten baita.

Zer-moduzko ibilbidea izan da, ideia sortu zenutenetik gaur egunera?

Kontu honekin otsailean hasi ginen. Egia

esan, oso presazkoa izan da guztia. Denbora gutxi izan dugu eta gainera eskaintza gehiena kalean zegoen martxan hasterako. Denboraren arazoak kezkatzen gintuen, baina beno, azkenean ondo iritsi gara eta ez dugu inolako arazorik izan. Beste oztopo nagusi bat adinarena zen. Orain arte egon den eskaintza gehiena 12 urte baino gazteagoentzat izan da. 12 urtera arteko neska-mutilak udalekuetara animatzea oso erraza da ohituta daudelako; helduagoek aldiz, 12-17 urte bitartekoek, uda antolatzeke beste era batzuk izaten dituzte eta ez da erraza horrelako ekimenetara bultzatzea.

Nola erantzun diote gazteek eskaintzari?

Oso ondo, oso pozik gaude. Apirilaren 20an amaitzen zen izen emate epea, baina astebete lehenago beteta genituen taldeak. 130 gazte ditugu orotara. Esan beharra dago komunikazio plangintza itzela egin dugula. Batez ere internet erabili dugu bide bezala; adibidez, grabatu genuen spot-a sarean eskegi genuen eta, aldi berean, ikastolaz ikastola ibili gara spot-arekin aurkezpenak egiten. Nik esango nuke ikastolara hurbiltzeak, klaserarekin sartzekak eta gainera irakaslea ez den norbaitek zerbait azaltzeko ere lagundu egin duela arrakasta honetan. Bestalde, izenburua ere, Gazte Egonaldiak 07, arrakastaren gakoetako bat izan da. Ez dugu inon udaleku hitza aipatu. Horretan oso kontuz ibili gara, udalekua txikienezko kontuekin lotzen baitute gazteek. Euskara ere ez dugu aipatu esku-orrian, zeharka landu dugun gaia izan da.

Ekimena Arabatik sortu da Euskal Herri osora begira. Kasualitatea da, edo hemen euskararen normalkuntzarako behar hori gehiago sumatzen dugun seinale?

Ez dut uste hori kasualitatea denik. Araban ikusten genuen zer edo zer egin behar zela. Beti izan dugu periferiaren



konplexu hori, baina beno, periferiatik sortu den gauza bat da eta azkenean ere izen emate gehienak periferiatik etorri dira: Nafarroatik, Iparraldetik eta Arabatik etorri zaizkigu gehienak.

Gazte Egonaldi hauek Bernedon izango dira. Zergatik aukeratu duzue Bernedo?

Zonalde honek aukera asko ematen dizkigu, niretzat ere orain arte arrotzak zirenak. Araban izugarritzko altxorra da Bernedo aldea eta interes handiko gunea. Txondorren mundua erakusteko ibilbidea, bere garaian karobiak nola zeuden ikasteko aukera eta koba artifizialak bisitatzeko parada izango dute gazteek, besteak beste. Non dauden erakutsi nahi diegu, ez direla leku isolatu batera etorri soilik hiru ekintza nagusi egitera. Hainbat aurreiritzi ere apurtuko dira, Araba berdea eta menditsua ere badela ikusiko dute. Ikusten denez, tokiak ere emango dio bere puntua ■

m. mundina



zutabea



Araba eta igelarena

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Aurreko alean aipatu egin genuen, eta 'Arabako Euskal Hotsak' liburuaren hasieran irakurtzen ahal dugunez, Odon Apraiz ikerlari arabarrak horrela idatzi zuen 1950. urtean: "Kixote argitaratu zenean arabar gehienek Ramaiana epopeia indiarra bezala ulertuko zuten".

Ez dezagun perspektiba gal, Arabako Ramaianaren desagerpenaren nondik norakoak 1717ko espainiar erret dekretu batean irakurtzen ahal dugulakotz: "para que el idioma castellano sustituya a los demás es conveniente dar instrucciones y providencias muy templadas y disimuladas, de manera que se consiga el efecto sin que se note el cuidado".

Izan ere, aspaldiko partez lagun on batek igelaren alegia kondatu zidan: "Beitu, Erlantz, lapiko bat urez bete, sutan jarri eta ura bor-bor hasten denean igel bat uretan morgiltzen baduzu, igelak bere burua erretzen duen ur bero ikaragarria nabaritu eta lapikotik kanporat salto egingen du, bere burua salbatuz. Baina eta hemen, lapiko bat urez bete eta bertan igela sartzen baduzu, bera berriz ere uretan dela nabaritu eta goxo-goxo sendituko da. Gero, emeki-emeki, sua piztu, sua igo, eta ura bor-bor hasten denerako igela, salto egin gabe, bertan hilen da".

Nahi baino gehiagotan aditu dut euskara jadanik salbu dela, Arabako etorkizuna euskalduna izanen dela. Horrelakoetan ene lagunaren igelaz oroitzen naiz ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XVI)

Oraingoan, irakurle, Euskaltzaindiak onetsi duen "Larrazubi" alderdirat joanen gara. Zer ote da "Larrazubi" delako hori? Bon, ziurrenik arabar gehienendako bada ezagunagoa den bertze toki izen bat, hain zuzen ere sasiuskaraz-sasierdaraz "Puentelarra", "Puentelarrá" deitu ohi dena.

Dirudenez, 1798. urte aldean oraindik "Puente Larra" idazten zuten eskribauek, hots, hitzaren zati bakoitza ongi bereizturik. Lehenagotik dator, baina, "iskanbila" ortografiakoa. Izan ere, XVII. mendeko agiri korapilatsuetan "Puentellarad" irakurtzen ahal da, baita, data hori baino lehen, iraganean morgildurik hagitzez denbora luzeagoa igaro eta "Puente-Larrt" agertuko zaigu.

Ezagutzen dugun aipamenik zaharrenat jo eta, horra hor altxorra, 853. urtean "Larrate" hitz soila dago. Hau da, Nafarroa Garaiko Zarrakastelu (erdarazko Carcastillo), Fitero ("La Rate") edota Errioxako Erdi Aroko agiritegietan maiz errepikatzen dena, Kalagorrian (Calahorra) bezala: "Larrate".

Toki izen hori hainbatetan mugarriren gisa erabili baita, artzaintzan, abeltzaintzan, abereak non izateko eremuak mugatzeko eta. Nork daki, agian egungo "Larrazubi", "Larrate" zaharra omen zena, mugaren bat adierazteko erabili zuten gure arbasoek. Ikerketek erranen.



PPSOE

EL PATO Y LA MUERTE

t. txabi arnal gil

Nahiz eta ikusi ez, ahateak badaki aspalditik norbait atzetik doakiola. Eta gaur, azkenik, aspaldiko presentzia isileko hura ikusi ahal izan du.

- Nor zara? Zergatik jarraitzen nauzu hain hurbiletik inolako zaratarik egin gabe?

- Ikusi nauzu, bai, eta pozten nau horrek. Heriotza naiz.

- Nire bila zatoz? Ahatea beldurtuta zegoen (eta nor ez legoke horrela?).

- Zure ondoan ibili naiz jaio zinen egun bertatik... Badaezpada ere.

Heriotza. Ez da ohiko gaia haur literaturan. Ezta erreza ere. Hala ere, Ellbruch-ek maisutasun handiz jorritzen du bigarrenaz. (Ez dezagun ahantzi *La Gran Pregunta*. Wolf Erlbruch. Kókinos, 2004).

Ahateari laguntzen dion heriotza itxura atseginetako da, apala, jakituna, detaile eta gauza txikieneko interesa eta maitasuna agertzen duena. Eta ahatea kezkatuta dago. Nor ez legoke kezkatuta, bada, heriotza ondolan izanik? Ahateak zerbait barruntatzen du aspalditik, baina barruntatzen duen horri ez zaio aurpegira begiratzera ausartzen, ez du aspalditik buruan darabilkion galdera erantzun nahi. Hala ere, heriotza begiko honek bietan lagunduko dio.

Gogoz barre eginarazi zigun Erlbruch-ek *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoaren* bitartez. Irudimena zabaldu zigun *Por la noche* tituluko hark. Eta oraingo honetan "galdera handiena" hurreratzen digu. Heriotza atsegin bat aurkezten digu inoiz bakarrik sentitu ez gaitzen. Isiluneekin, hitzekin eta irudiekin gozatzeko liburu bat eskaintzen digu. Protagonista heriotza izanik ere ■

EL PATO Y LA MUERTE. Wolf Erlbruch. Barbara Fiore Editora, 2007



ipuinak

pirritx eta porrotx - tiderrekin tea hartzen

egileak: murua, mitxel / tokero, julen
(bildumaren 5.a)
7,35 euro



pirritxek eta porrotxek badute lagun bat tider izena duena. tiderrek ama euskalduna du, eta aita sahararra. horregatik, tiderren ametsa saharako basamortua eza gutzea da, aita hangoa delako. behin tiderrek tea hartzera gonbidatu zituen etxera pirritx eta porrotx, eta haren aitak, tea prestatu bitartean, basamortuko kontuen berri eman zien; hala jakin zuten basamortuan ura garratza dela, eta jakin ere jakin zuten zergatik etorri zen euskal herrira tiderren aita.

pirritx eta porrotx - agur pakito!

egileak: murua, mitxel / tokero, julen
(bildumaren 6.a)
7,35 euro



pirritxek eta porrotxek pakito izurdea ezagutu dute. beren lagun batek aurkeztu die, kintxo barriletek. kintxo barrilete nikaraguakoa da. amarekin etorri da euskal herrira, beren herrian pobrezia handia dagoelako. kintxok mediku izan nahi du handia izandakoan. kintxo kometa batekin ibiltzen da beti, eta pakitori gustatu egiten zaio kometa jolaserako. pirritx eta porrotx ere izurdearen lagun egin dira, eta haren bizkar gainean itsas hondoa deskubrituko dute.

bildumaren gainontzeko ipuinak

1. pirritx eta porrotx arrantzan
2. pirritx eta porrotx herriko postariak
3. pirritx eta porrotx - gorka konpontzailea
4. pirritx eta porrotx - nerearen argazki albuma

elkarlanean.com

diseinadore grafikoa / maketatzailea behar da
(quark xpress / adobe indesign / freehand / photoshop)
curriculum-a bidali: info@dalvez.com

ITSASMENDIKOI

LEHENENGO SEKTOREAREN ETORKIZUNA SUSPERTZEN

Mendikoi izenarekin sortu 1998. urtean eta nekazal munduaren garapenean lanean hasi zen nekazaritza departamentuko enpresa publiko modura.

Handik urte batzuetara, aurten hain zuzen, Itsasmendikoi izena hartu du

Pasaiaiko Itsas-eskolarekin bat egitearen ondorioz. Gaur egun lehen sektorean langileak trebatu, laneratzea samurtu eta landa eta itsas guneen suspertze eta garapenean dihardu.

t. maite lekue

a. edorta sanz

ITSASMENDIKOIren eginkizuna landa eta itsasertz eremuetan prestakuntzarako, sustapenerako, laneratzeko eta garapenerako jarduerak planifikatu eta gauzatzea da, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa Garapenerako Zuzendaritzaren menpe dagoen sozietate publiko moduan eratuta dago. Itsasmendikoiren helburu nagusien artean Euskadiko lehen sektorea modernizatu eta profesionalizatzea da, bai eta sektore horretako belaunaldi berria bermatzea ere. Beste xedeetako bat aldiz, gure herrian lurralde oreka berreskuratzea da, hiri eremuetako bizi baldintzekin parekatzeko batetik, eta kulturari eta ohiturei eusteko bestetik.

Itsasmendikoiren ildoak

Prestakuntza, laneratzea eta landa eta itsasertzeko eremuen garapena dira Itsasmendikoik lantzen dituen hiru jardun eremu nagusiak. Itsasmendikoiren arlorik ezagunena prestakuntza arloa izan da orain arte, bertan Erkidegoko nekazaritza eta itsas-arrantza arloko prestakuntza eskaintzarik zabalena dagoelako, eta aha-lerin honetan gogotsu dihardutelako egun ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera elkarlanean. Gauzak horrela, sektorea sakon ezagutzeko jarduera desberdinak aurrera ateratzen dira, hala nola, Diseinu kurrikularrak, Kualifikazio sistema zein Lanbide heziketa azokak bultzatuz.

Prestakuntza arautua eta ez arautua

Prestakuntza arautua (Hasierako prestakuntza) zein ez arautua (Etengabeko prestakuntza eta prestakuntza trinkoa) gauzatu dai-

tezke Itsasmendikoik Erkidegoan dituen lau eskoletan.

Hasierako prestakuntza, arautuak diren zikloek osatzen dute, eta erdi mailako zein goi mailako zikloak egiteko aukera dago honako zentro zein espezialitateetan:

NEKAZARITZA JARDUERAN PRESTAKUNTZA		
ESKOLA	ERDI MAILAKO ZIKLOA (2 urte)	GOI MAILAKO ZIKLOA (2 urte)
ARKAUTE (Araba)	-Lorezaintza -Nekazaritza-Ustiapen Estentsiboa	-Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolamendua
DERIO (Bizkaia)	-Lorezaintza -Nekazaritza-Ustiapen Intentsiboa	-Baliabide naturalen eta paisajistikoaren kudeaketa eta antolamendua
FRAISORO (Gipuzkoa)	-Lorezaintza -Abeltzaintzako Ustiapenak antolamendua	-Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta
BERRITASUNA ITSAS-ARRANTZA JARDUERAN PRESTAKUNTZA		
ESKOLA	ERDI MAILAKO ZIKLOA	GOI MAILAKO ZIKLOA
PASAIKOA (Gipuzkoa)	Arrantza eta itsas-garraioa. Itsasontziaren makinena eta instalazioen operazio, kontrol eta mantentze lanak	-Nabigatze, arrantza eta itsas-garraioa -Itsasontziaren makinena eta instalazioen ikuskapena eta kontrola



jose luis aizpuru, arkauteko zuzendaria

Prestakuntza ez arautuari dagokionez, etengabeko prestakuntza nahiz prestakuntza trinkoa gauzatzeko aukera badago. Ikastaro hauek denborari dagokionez murriztak dira (10, 20 edo 60 ordu) eta pertsona ororen etengabeko prestakuntzara bideratuta daude. Egungo eskaintzan mota honetako 85 ikastaro baino gehiago gauzatu daitezke, eta bost-sei mila ikasle inguru aritu ohi dira halakotan; dagoen aniztasuna eta berezitasuna hain da zabala ezen sail desberdinetan eskaintzen diren. Hauetako batzuk aipatzearren: eremu orokorrean, 'Kanpo-merkataritzako ikastaro praktikoa'; nekazaritza eremuan, 'Nekazaritzan energia aurrezte eta modu eraginkorrean erabiltzeko ikastaroa'; lorazaintza sailean, 'Basoko loreen artisautza', eta horrelakoak jaso daitezke.

Prestakuntza trinkoari dagokionean, ordu gehiagoko ikastaroak daude bertan. Ikastaro hauek 150 ordu baino gehiagokoak izan ohi dira normalean eta hiru dira gehienbat jorratu daitezkeenak:

- Nekazaritza Lanetako Arriskuen Prebentzioan Goi mailako Teknikaria, 600 ordu, ARKAUTEn
- Baratzazaintza, 200 ordu, DERIOIn
- Mahastiazaintza eta Enologia, 250 ordu, LAPUEBLAn

Euskara eta lan etorkizuna

Euskaraz ikasteko aukera bermatuta dago nekazal eta itsas-zenetro guztietan. Araban hala ere, euskalduntze prozesu hau beste herrialde batzuekin konparatuz gero motel doala aitortu digute.



Ikasleen lanbideratzea, aldiz, oso altua dela diote datuek, %76-77 bitartekoa hain zuzen. Eta arrakasta handien duen ikastaroetako bat berriz, lorazaintzarena.

Nekazaritza ekologikoa

Nekazaritza ekologikoaren harira, Irunen egiten den Bioterra Azokan izan dira orain gutxi Itsasmendikoikoak. Baina ez da hau bide honen alde egindako ahalegin bakarra, bere prestakuntza eskaintzaren eremuan ugariak baitira arlo ekologikoarekin harreman dutako ikastaroak: hala nola, abeltzaintza ekologikoa, baratzazaintza ekologikoa, txerri-ekoizpen ekologikoa, nekazaritza biodinamikoa eta horrelako hainbat eskaintzen baitira ■

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Golain Industrialdea
Tl/fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

BIDAIATEKA

BIDAIAZALEEN TXOKOA

Uda gure artean da berriz eta honekin bidaiatzeko sasoi aproposa ere bai. Baina, nora jo oraingoan? Munduko edozein lekutako ibilbideak, proposamenak, mapak, bidaiia-gidak edota informazioa eskuratzeko, badugu gure esku aurten ere Bidaiateka.



bidaiateka-ko lan taldea, eskubian zutik, inma solaun, arduraduna

t. saioa fdz de arangiz
a. edorta sanz

Azkeen urteetan bezala, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoak Bidaiatekaren atea zabaltzen du, hots, edozein bidaiarik bere bidaiia prestatzeko behar

duen informazioz beteriko txokoa. Urte osoko zerbitzu iraunkorra bada ere, udan arreta berezia eskaintzen diote bidaiatzeko informazioa eta aholkuak guztion esku jartzeko dituen doako zerbitzu honi. Izan ere, "jendearengana hurbiltzeko asmoz, udan ordutegia zabaltzen dugu, bezeroek kon-



tsultak denbora arazorik gabe egin ditza-
ten”, argitzen du Bidaiatekako arduradun
Inma Solaunek.

Ibilbiderik onenak, garraibiderik egokie-
nak, beherapenak lortzeko aukerak, txar-
telak, ostatuak... makina bat datu aurki
daitezke oporrak primeran ateratzeko.
Printzipioz, 18 eta 30 urte bitarteko gazte-
entzako zerbitzua da, halarik ere “aisialdia,
oporrak eta bidaiak antolatu nahi dituzten
herriar guztientzako eskaintza ere bada
Bidaiateka”, argitzen du Inmak.

Interail bidaien inguruko informazio
eskaera nagusitzen dela aitortzen du
Solaunek eta azken boladan, “modan
dagoen herrialdea Kroazia” dela diosku.

3.200 liburuskak berri

Bulegora hurbiltzen den bidaiariak 1990.
urteik aurrera bildutako dokumentu guz-
tiak izango ditu eskuragarri. Izan ere, infor-
mazio hau urtero berritzen dute eta esate-
rako, aurrean FITUR azokara egin zuten
bidaia bulegoak. “Leku guztietako doku-
mentuak hartu genituen bertan. 3.200
liburuxka bildu genituen, 340 kg. inguru”,
dio Inmak.

Guztira, herrialdeka edo eskualdeka
antolatuta dauden 380 karpeta inguru
osatu dituzte, honen barnean karpeta
monografikoak daudelarik, besteak beste,
aldi baterako lana atzerrian, Done
Jakueren bidea edo udako ikastaro eta

ekintzen inguruko informazioz josita.
Honekin batera, 2.225 gida eta bidaia libu-
ru inguru aurki daitezke bertan, hala nola,
kanpin-gidak, ostatuak, bizikletaz egite-
ko ibilbideak edota herrialde jakin batzuei
buruzkoak... Altair, Rutas del Mundo, Geo
edo Euskal Herria bidaia aldizkariak, esate-
rako, aurreko dokumentazio eskaintza
zabala osatzen dute.

Aterpetxe, gazte edo ikasleen nazioarte-
ko agiriari kudeatzea eta interneten kon-
sultak egiteko aukera ere badira bulego
honen bestelako zerbitzuak.

Harrera ona

Eskaintza zabal honek publikoaren esker
ona jaso du eta datuek horrela baieztatzen
dute. Horrela, 2006 urteko udan 1.394
lagun bertaratu ziren informazio eske, hau
da, urteko erabileraren %42.

Pozik daude beraz, eta bere hastapenetatik
zerbitzu honek mantendu dituen bi
helburuei eutsi egiten dietela adierazten
dute antolatzaileek; “batetik, norberaren
garapena sustatzea eta sozializazioa eta
askatasunerako prozesuak azpimarratzea,
oporraldian mugikortasuna bultzatzen
duten baliabide eta jardueren berri eta
aholkuak emanez. Eta bestetik, elkartasu-
na, begirunea, elkarbizitza eta bakearen
baloreak eraikitzea bultzatuko duten kul-
turen arteko hartu-emanak sustatzea” ■

PARTE-HARTZEA SUSTATUZ

Bidaiatekak honako jarduerak antola-
tu ditu bidaiarien parte-hartzea sustatu
nahian:

- > www.vitoria-gasteiz.org/viajeteca
webgunean leku interesgarriak go-
mendatzeko, bidaideak topatzeko
edo argazkiak erakusteko parada
egongo da.
- > Webgunean parte hartzen dutenen
artean, bidaiatekako babesleek sariak
zozketatuko dituzte; informatika ikas-
taroak, kirol abentura ekintzak, tren
bidaiak...
- > **Argazki eta kontakizun lehiaketa.**
Abac liburudendak babesturik,
bidaien inguruko argazki eta kontakizun
lehiaketa egingo da. Informazio
gehiago [www.vitoria-gasteiz.org/via-](http://www.vitoria-gasteiz.org/viajeteca)
jeteca webgunean.



> kokapena:

gazteen argibideetarako
udal bulegoa (plaza berria
1, behekoak)

> ordutegia:

-ekainak 11- uztailak 27,
astelehenetik ostiralera,
10:00-14:00 eta 17:30-20:30
(ostiral arratsaldeetan itxi-
ta)

-abuztua eta iraila, astele-
henetik ostiralera,
10:00etatik 14:00etara.

-urtean zehar: astelehene-
tik ostiralera, 10:00-
14:00eta 17:00-19:00 (osti-
ral arratsaldeetan itxita)

“ASKATASUNAREN” LURRALDEA

t./a. saioa fdz de arangiz



Bazen behin, Ekialde Urrunean, Asia ezezagunean, Thai izeneko lurralde liluragarria. Izan ere, bertako hizkuntzan “thai” hitzak askatasuna esan nahi du; Askatasunaren lurraldea, alegia, eta bertako talde etniko handienak izen bera jasotzen du. Orain dela bi mila urte baino gehiago Txinatik ihes egin zuena, hain zuzen. Ondoko herrialdeak ez bezala, mendeetan zehar kanpoko erasoetatik garaitzina mantendu den herria dugu hau, berezko nortasuna jelskor eta denboraren poderioz mantendu duena. Budismoa, abegitasuna eta lasaitasuna, haren seinale dira. Intentsu eta espezia usainek giroa blaitzen dute. Budari egindako eskaintzak nonahi, ustekabeko lekuetan. Bertako biztanleen irribarre gozoak herrialdea ezagutzera gonbidatzen zaitu, hala ere, tamalez azken hamarkadetan lurraldeak jasan duen ustiapen turistikoa ere modu larrian nabaritzen hasia da.




Bangkok, hiriburua, Asiako hego-ekialdeko sarbidea dugu eta hori nabaria da. Usadio eta ohituraz beteriko auzoak, erabat modernoak diren horiekin nahasten dira. Historia handiko tenplu budistak eta zeru goietan bidaiatzen den tren futurista. Gazte kosmopolitak eta agure tradizionalak. Guztia, bidaiaria pixkanaka herrialde harrigarri honek eskainiko diona dastatzen joan dadin.

Iparralderako bidaiia hartuz, mendia eta baso tropikala topatzen ditugu aurrez aurre. Oraindik euren bizimoduari eutsi dioten tribu gutxi batzuk bizi dira inguru horietan, batez ere, Myanmar eta Laoseko mugetan. Ezagunenak Karen etniako lepo luzedun emakumeak. Egun ere, tigreen erasoetatik babesteko antzinako ohitura mantenduz, lepoan eta belaunetan eratzunak jartzen dituzte. Egun, tribu honetako 60 herrixka inguruk bizirik diraute, baina zoriturrez, hauetako bi, zirku turistiko tamalgariaren ikuskizun bilakatu dira.

Arroz soroek, bertakoen sostengu, paisaia berde bizi batez estaltzen dute dena, oiha-na jaten duten bitartean.

Herrialdeko hegoaldea, penintsula izaki, Andaman itsasoak eta Thailandiako golkoak ureztatzen dute. Ehundaka uharterekin batera, leku paradisiakoa marrazten da. Itsasotik altxatzen diren formazio karstikoak, ur gardenak, hondartza paregabeak dira nagusi. Nolanahi ere, turismo jendetsutik aldenduz, egun posible da lasaitasunaz gozatzeko leku ezutuak aurkitzea, kasu, Krabi probintziako hainbat txoko.

Arrantza eta batez ere turismoa dira bizi-modua bertakoentzat. Hori dela bide, orain dela 3 urte tsunamiak erabat sunsittu zituen herriak pixkanaka eta bertakoen kemenaz altxatzen ari dira berriro ere ■



ZUIAKO KOADRILAKO IBILBIDEAK, ARTE ETA NATURAZ BLAI

ESKAINITZA EZIN HOBEA ETXETIK GERTU!

t. saioa fdz de arangiz

a. zuiako koadrila

Ez dugu urrutira joan behar natura eta artearen mirariaz gozatzeko. Etxetik gertu, Arabako iparraldean, eskaintza paregabea jartzen dute gure esku, Zuiako Koadrilan hain zuzen. "Larren leun, kondairaz beteriko basoak, baserriak eta dorretxeak, errota eta baselizak harmonia bizian... guregana etorriko dira mendeetan zehar gorde diren historia eta kondaira ezberdina kontatzeko".

Gorbeia zein Urkiolako mendi-hegalen artean kokaturik, euskarak, ohiturek eta tradizioek bizirik dirauten txoko horietan, Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutiano, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia ezagutzeko beta izanen du bisitariak.

Hamaika ibilbide, urtegi artifiziaiak, ibaiak, antzinako aztarnek utzitako kobazuloak, landarediak eta bertan bizi diren animalia ugari ikusgai izango dira proposatzen dizkiguten lau ibilbide desberdinetan.

Lehenengo txangoak Arrazua-Ubarrundia eta Zigoitiko txoko berezienak miatzen ditu. Zurbano, Basterra, Otorra edo Isunza familienak izan ziren XVII eta XVIII. mendeetako jauregiak, Urbinako eliza edo Manurgako eraikinak (eliza, jauregia, dorretxea, garbitegiak...) bisitatuko dira lehenengo ibilaldi honetan.

Bigarrenik, Zuiaren txanda izango da. Egunari hasiera emateko, Oroko Ama Birjinaren santutegia, jada Burdin Aroan gizonaren bizileku izan zen leku magikoa eta haranaren ikuspegi ezin hobea eskaintzen duena. Ostean Murgiako herria, Ezti Museoa eta Gorbeia parke naturalean

kokagune duen Sarria eta bertako errota eta kareagilea bisitatuko dira.

Urkabustaiz izango da hirugarren ibilbidearen protagonista. Ingurunean zabalitzen diren eliza erromaniko ugariaren artean, Gorbeia haizeak eramaten duen 100 metro altuerako ur-jauziak liluratuko du bisitaria, baita Goiuri herriko elizak zein errota ere. Bestalde, gure arbasoen bizimoduak ezagutzeko asmoz, Izarrako 'Irubidaur' museo etnografikoa eta inguru

- ekainaren 16tik urriaren 14ra bitartera, larunbat eta igandeetan, goizeko 10:00etatik 14:00ak arte
- ibilbidea osorik edo zatika egin daiteke, bisita guztiek euren ordutegi finkoa baitute
- prezioa: 4 euro
- bisiten informazioa: 945 243 828 cuadrillazuia.com

horietako nekazaritza, abeltzaintza eta artisaua ikusgai izango dira, besteak beste. Abezia herriak eta bertako Urbina baserri zaharrak amaiera emango diote hirugarren ibilbide honi.

Azkenik, Legutiano eta Aramaio aldera abiatuko gara. Lehendabiziko geltokia, Legutiano; Erdi-Aroak guda askori bidea egin dion hiribildu-erreal, hain zuzen. Hortik Oletarako bidea hartuko du txan-



goak, Anboto, Orixol eta Arangioko mendi hegaletan ezkatututa, eliza eta 'Atxineta' baserria ikusteko. Orein hazkuntza eta ahabi-sailak gertutik ezagutzeko aukera ona. Izan ere, uztailean edonork bere kontsumorako ahabi-bilketa egin ahal izango du.

Besteak beste, Mari 'Anbotoko Dama' edo 'Barajuengo Jauntxo' kondaira eta pertsonaien babesleku diren Ibarra eta Azkoaga auzoei egindako bisitak amaiera emango dio laugarren ibilaldi honi ■



VIRGEN BLANCA JATETXEA

t. josune velez de mendizabal

a. edorta sanz

Uztailean bi urte bete berri ditu Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan kokatzen den izen bereko jatetxeak. Denbora honetan guztian estilo askotariko zaleak bildu ditu Txus Tejadoren taberna-jatetxeak giro atsegin eta sukalde oparoaren inguruan. Eguneko menuak, menu bereziak, gosariak, pintxoak, ekitaldi kulturalak, afariak... Eta eskaintza anitz honen artean oraingoan berezitasun bat, kazolatxoak. Hori eta gehiago Gasteizko erdiguneko kafetegi honetan.

“Barra txikitu eta leku gehiago utzi genuen mahaiantzat. Hori baita edozein tabernak bilatzen duena”, aitortu du Virgen Blanca kafetegiko jabeak. Hamazazpi lagunez osaturiko sukaldari eta zerbitzari taldearekin dabil egun Txus lanean. Bere taberna giro anitzaz janzten da egunero orduaren arabera. Hala nola, goizetan, gosalduta bitartean, Gasteizko plazarik esanguratsuenaren irudiaz gozatzeko parada ematen du bere kristalezko balkoi ederrak. Eguerdian eguneroko menua dastatzeko jende nahikoa gerturitzen da bertara. Arratsaldeetan ordea, musika eta antzezlanak entzuteko nahiz ikusteko eszenatoki bilakatzen da. Eta gauetan, afaltzeko aukera ere eskaintzen duen lekua da.

Zapore eta bezeroen arteko oreka arrakastatsua

“Leku atsegina da, erakusleihu paregabea duena eta bezeroa gustura ateratzen da jasotako tratuekin”, erantzun du Txusek arrakasta zertan datzan egindako galderari. “Musika eta giroaren arteko orekari ere begiratzeko diogu, hau da, zerbait hartzen egon zaitezke musikaren giroaz, baina aldi berean elkarrizketa bat mantenduz zaratarik gabe”, nabarmendu du.

Janariari dagokionez, Virgen Blancako eguneroko menua gainontzeko jatetxeetako baino apur garestiagoa da. “Ez asko ordea. Hamar eurokoa

izan beharrean 13,80 eurokoa da, eta alde horren trukean kalitateak ere gora egiten du nabarmen. Agian egunero etorri gero ezinezkoa izango litzateke baina merezi du gurean bazkaltzea”.

Sukalde motari buruz honakoa dio Txusek: “Bost lehen plater eta beste bost bigarren plater eskaintzen ditugu egunero. Saiatzen gara beti plater tradizional edo klasiko bat egon dadin eta ostean entsalada edota barazkiak, pasta edo arroza. Jendeari horrelakoak gustatzen baitzaizkio. Bigarrenetan berriz, beti prestatzen ditugu hiru haragi (egosia, plantxan edo txuleta izan daitekeena), nahaski bat eta arrain bat, azken hau garaiaren arabera”. Txusek onartzen du jendea gustura gera dadila dela euren helburua eta horregatik hain zuzen ere, bai “koilarako platerak” edota “sinpleagoak, saltsa gabekoak” nahiago dituenak, biek ala biek, egingo luketela aukera ona Virgen Blancara gerturatzuz gero. Eguneroko menuaz gain, gainera, asteburuetan kartan menu bereziak ere badituzte.

Kazolatxoak, berezitasun interesagarria eta berritzailea

Baina zalantza barik kazolatxoen aldeko apustua egin du Virgen Blancak azken hila-beteetan. “Pintxoaren astean egiten diren horien antzeko kazolatxoak dira, baina oraingoan urte osoan barrena gozatu daitezkeenak gurean”, dio jabeak. 3 euroko prezioa dauka bakoitzak eta astero eskain-



zenbait kazolatxo

- Haragi lasagna eta alberjinia labean
- Arrautza frijituak panadera patata eta baratxuridun gulekin
- Guakamole natxitoekin
- Gazta bikotea irasagar eta pinazien pureaz
- Iberiar ehizakia kipulin xamurreko kremaz
- Bertoko piperrak

tza desberdina dago. “Tabernan afalordua heltzen zaionari eta menu bat ordaintzeko adina ez duenari aukera ekonomikoagoa ahalbidetzea da gure nahia -azaldu du-. Arrazoi ekonomikoa ez dadila aitzakia izan lagunen arteko elkarriketa eteteko eta bertan behera uzteko”. Txusen ideiak oso erantzun ona jaso du orain artean. Kazolatxo bakoitzeko 3 euro eta 10 euro lau kazolatxoren truke ■

Kultur ekitaldiak, irailetik aurrera eskaintza berria

Buruari bueltaka etengabe, eskaintza kulturalarekin ere asmatu egin duela ematen du. “Hiriak ez daukana, orain arte eskaini ez dena bilatu nahi dugu -aitortu du. Egunkarian begiratzuz gero ostegunetan zazpi bat ekitaldi agertzen dira. Guk ekainean bukatu berri dugu apirilean hasitako kultur ekitaldien lehen zikloa eta oso ondo joan zaigu. Antzerkia eta musika taularatu ditugu ostegunero gaueko 21:00etatik aurrera. Baina esan bezala, gauza berriak nahi ditugu”. Ildo horretatik, lanean jarraituko du Txusek irailetik aurrera ordutegi eta hitzordu berriak antolatzeke. “Ostegunetan berez eskaintza handia denez seguruenik antzerkia eta musika asteazkenetara pasako dugu; bestetik, asteartean musika klasikoko emanaldiak antolatzea gustatuko litzaidake, horrelakorik ez baitago hiri osoan”.

Txusen aholku&gonbita

Zizka-mizkak: Menu bereziek eskaintzen dituzten zizka-mizketatik edozein.

Bigarrena: Bakailaodun kraskatua piper krema eta sagar egosiarekin. “Sagardotegi baten zaporea platerean lortzea da asmoa”.

Postrea: Hiru gazta pastela.

Ardoa: “Sei bat Arabar Errioxako ardo ditugu kartan, baita Ribera del Dueroko bat ere. Ardoetan kolore eta zapore ugari dagoen heinean gustuaren arabera utziko nuke nik aukera hau”.



erakusketa: gasteizko
katedral berrian
uztailaren 26ra arte
cancillerayala.net

PERO LOPEZ DE AIALA KANTZILLERRA

t. kike fdz de pinedo, filologoa

a. edorta sanz

1332 urtean gaude. Arriagako Kofradiak, Gasteiz eta Aguraingo errege-hiribilduen boterearen aurrean etsita, egoera berrira egokitzea erabakitzen du. Horretarako "harakiria" eginez kofradia desegin eta trukean eskubide eta onura berriak jasoko dituzte Erregearen partetik. "Voluntaria Entrega" hau egin zuten nobleen artean Fernan Perez de Aialaren sinadura dago. Urte berean bere bizileku Toledo utzi eta Kexaara joana zen hango oinetxea eta jaurrerria eskuratu berri baitzituen. Garai berean lehen semea Pero Lopez de Aiala jaioko da. Aitak semeari bidea ondo prestatuta utziko dio; Kexaako jauregia handitu, moja-komentua zabaldu eta lur eremua zabalduko du.

Pero Lopez de Aiala diplomatiko eta kantzillerra

17 urtera arte heziketa klerikala jaso zuen Toledon kultura oparoa lortuz. Prestakuntza honekin Gortera joko du, Gaztelako Koroaren goi funtzionario bihurtuz. Ez da kasualitatea, hainbat mendetan hemengo nobleziaren parte handi batek Gorteko ardurar militar edo administratiboen bitartez gizarte promozioa eta maila ekonomikoa hobetzea bilatuko du. Bide honetatik gure pertsonaiak laster lortuko du Erregearen konfiantza goi mailako karguak eskuratuz, besteak beste, Gasteiz eta Toledoko alkate nagusi, Araba eta Gipuzkoako Merino nagusi edo Gaztelako Kantziller nagusi. Hainbat gatazka armatutan ere parte hartu zuen birritan preso eginez. Hala ere, gerra kontuetan bainoago Europan zehar eginiko lan diplomatikoetan nabarmenduko da. Izurrite beltzak Europa osoa gogor astinduko du heriotza eta gosea zabalduz hemengo eta hango nekazari xumeen artean. Merkataritza bide berriek eta Atlantiko itsas portuen kontrolak tentsioak sortuko ditu 100 urteko gerra piztuz. Eliza ere ez da libratuko

gatazketatik, 1378an bi Aita Santu izendapenarekin Zisma sortuko da. Gatazka hauen inguruan behin baino gehiagotan ikusiko dugu gure Kantzillerra Avignonen edo Parisen enbaxadore lanetan.

Pero Lopez de Aiala idazle

Duda barik, Erdi Aroko idazle nabarmenetakoa izango da. Mardula da bere obra itzultzaile, kronista eta poeta moduan. Itzulpenetan garaiko pentsamenduko lan garrantzitsuak utzi zizkigun. Bere kronika historikoetan ezagututako lau erregealdien gorabeheren berri eman zigun prosa landuan. Baina denen artean kartzelan idatzitako *Rimado de Palacio* poema liburua gailentzen da. Bertan Gortearen eta boterearen justifikazioaren batera kritika zirikatzailea ere egiten du.

Aialatarren arrastoa

Leinua kantzillerrarekin maila gorenera iristen bada ere, Erdi Aro guztian zehar topako dugu euren arrastoa. Gaztelan "ricoshombres" taldeko partaide izango dira. Gasteizen banderizoen garaian hiriaren gobernua Callejatarren eta Aialatarren (San Pedro eta San Migel elizak zituzten batzarleku) artean banatuko dute 1476 arte. Araban ipar-mendebala, hain juxtu Gaztelatik itsas portuetara zihozten bideak kontrolatuko dituzte. Horrela Aiara, Urkabustaiz, Arrastaria, Orozko, Kuartango, Morillas, Agurain eta beste zenbait herri euren menpeko izango dira luzaroan. Badirudi herritar hauek ez zituztela sobera maite. Izan ere, Agurainen, Urduñan edo Aiaran behin baino gehiagotan matxinatu edo auzitara eramango dituzte zergen igoerekin eta bidegabekeriekin nazkatuta. XV mendean beste Pero Lopez de Aialarekin jaurerrien galera eta leinuaren gainbehera iritsiko da *comuneroen* gerran galdu eta gero.

Ez dadila bueltatu feudalismoa beste-la gaur egungo Agurain eta Aiarako jauntxo Alba etxeko Cayetano izango genuke eta ■



CANCELLER AYALA

VI. Menduurreneko Oroijpena
Commemoración VI Centenario

Fundación Sancho el Sablo Fundazioa



SARASOLA

jazzaharrean

ALDE ZAHARREKO JAZZ JAIALDIA **2007**
VITORIAGASTEIZ

3 **ASTEARTEA**
20:00 **KITSCH**
EL QUINTETO
DE LA MUERTE
21:30 **PARRAL**
DOWN HOME

4 **ASTEAZKENA**
20:00 **GORA**
KEBAB
21:30 **KITSCH**
BENDER vs FLEXO

5 **OSTEGUNA**
20:00 **PARRAL**
BEMSHA BOUNDS
21:30 **GORA**
ORGANIC TRIO
JORDI MATAS TRIO

OSTIRALA
PARRAL & GORA & KITSCH
GAUEZ DJS
SILUM SOUNDZ

10 **ASTEARTEA**
20:00 **KITSCH**
SHADE
21:30 **PARRAL**
SLUM QUARTET

11 **ASTEAZKENA**
20:00 **KITSCH**
ELECKTRIK VOICE
QUINTET
21:30 **GORA**
BOTXO BOOGIES

12 **OSTEGUNA**
20:00 **GORA**
J.P. BALCAZAR
QUARTET
featuring MIGUEL FDEZ. VALLEJO
21:30 **PARRAL**
W QUINTETO

PARRAL & GORA
GAUEZ DJS **BASQUE RADIKAL FUNK**
KITSCH